

KOSTU EGITURA

Arropa marka bat sortzea eta kudeatzea kostu askoren eta askotariko inbertsioen arabera da. Gure aurkezpen honetan, sektore honen oinarriak eta gastu nagusiak azaltzen dira:

- **Produkzioaren kostuak:** Lehengaiak (oihalak eta ehunak), fabrikazioa bertan edo azpikontratutako ekoizpenaren bidez, eta kalitate-kontrolak eta araudiak betetzeko gastuak.
- **Logistika eta banaketa:** Biltegiarzte-gastuak, nazioarteko eta tokiko garraioa, eta produktuak dendetara edo zuzenean bezeroengana eramatea.
- **Diseinua eta garapena:** Kolekzio berriak sortzeko diseinatzaile profesionalak, prototipoak garatzea eta merkatuko joerak aztertzea.
- **Marketina eta publizitatea:** Sare sozialak, influencerrak, iragarkiak, sustapen-kanpainak eta marka-ekitaldiak bezeroen arreta erakartzeko.
- **Erosle-esperientzia eta salmenta-puntuak:** Denda fisikoen alokairua eta mantentze-lanak, online plataformak garatzea eta erabiltzaile-esperientzia hobetzea.
- **Langileen gastuak:** Diseinua, marketina, administrazioa eta beste sailentzako langileen soldadak eta prestakuntza.
- **Araudia eta jasagarritasuna:** Gizarte- eta ingurumen-ardura gero eta garrantzitsuagoa da sektorean. Horrek jasagarritasun-neurrietan inbertitzea eskatzen du, hala nola material birziklatuak erabiltzea, kutsadura murrizteko teknologia berriak ezartzea edo ziurtagiri ekologikoak lortzea. Gainera, araudia betetzea ezinbestekoa da, eta horrek ere gastu gehigarriak dakar.
- **I+G (Ikerketa eta Garapena):** Arropa-markek produktu funtzional eta berritzaileak eskaintzeko etengabe inbertitu behar dute. Horretarako, material berrien ikerketa, jantzien eraginkortasuna eta erosotasuna hobetzea eta berrikuntza teknologikoa oso garrantzitsua da.
- **Online Plataforma sortuko duen enpresa:** Produktua internet bitartez erostea ahalbidetu ahal izateko erosleei.

